

**INNOBASQUEren BATZARRAREN AMAIERA
CLAUSURA ASAMBLEA INNOBASQUE**

2024-05-29 Donostia 29-05-2024

Lehendakariaren hitzaldia- Discurso del Lehendakari

Ahaldun nagusi andrea, Donostiako alkate jauna, Sailburuok, herri agintari eta herri ordezkariok, eta batez ere gaur Innobasque-ko presidente eta zuzendari orokorra, kideok, presidente ohiok, jaun-andreok, eguerdion!

Hunkituta jasotzen dut eman berri didazuen makila. Bihotzez eskertzen dizuet. Beti izango dut gogoan gure Herriaren berrikuntzaren alde egin duzuen guztia.

Berrikuntza Herri helburu bat da eta hamaika urte hauetan Europaren parera iristea lortu dugu. Hori da gure norabidea eta, elkarrekin, auzolanean, bide horretan aurrera egiten jarraitu behar dugu.

Gure herriko ikertzaile ezagun batek esaten ohi du “iraganeko edozein garai egungoa baino okerragoa izan zela”. Bat nator, horrela da: gure bizitza esperantza inoizko altuena da eta inoiz baino bizi kalitate hobea dugu. Inoiz baino elikagai gehiago ditugu eskura eta aukerak biderkatu egin zaizkigu.

Bere ondorioarekin ere bat nator: honen guztiaren erantzule zientzia eta berrikuntza izan dira; zientzia da gizadiaren historiako obra kultural kolektiborik garrantzitsuena.

Euskadik aspaldi egin zuen zientziaren, berrikuntzaren eta garapenaren aldeko apustu sendoa. Esparru askotan, gainera. Argi izan genuen atzera ez egiteko modu bakarra aurrera egitea zela.

Los resultados demuestran que hemos avanzado:

- En 1981 prácticamente no existía inversión. En 2001 pasamos a invertir 620 millones de euros. En 2022, invertimos 1.800 millones. Euskadi ha triplicado la inversión en Investigación y Desarrollo en 20 años,

- Hemos alcanzado el reto que compartimos hace una década: la convergencia con Europa en innovación,
- El European Innovation Scoreboard afianza a Euskadi en el grupo de 'Innovadores fuertes' junto a países como Alemania, Austria o Francia,
- Según el Informe RIS 2023 hemos avanzado 21 puestos y Euskadi se mantiene como 'Polo de excelencia regional' en Europa.
- Un último dato. Sabemos que esta última década Euskadi ha logrado crecer y generar oportunidades de empleo. Hemos asentado la industria y los servicios avanzados en el 40% de nuestro Producto Interior Bruto, en la media europea.

Ayer conocimos el Informe de la Comisión Europea que concluye que Euskadi ha avanzado en el indicador de Progreso social, superando en 13 puntos y medio la media europea.

Hemos logrado aunar crecimiento, empleo, desarrollo industrial, innovación, progreso y cohesión social.

Hoy reconozco el compromiso y la aportación de Innobasque en este camino. Innobasque ha acertado en aglutinar la labor de las instituciones y las empresas privadas al servicio de la innovación. Es un claro exponente de ese 'auzolana' que es la colaboración público-privada.

Auzolana, Lankidetzeta, Talde-lana. Denok helburu bera lortzeko: gure Herriaren aurrerabidea. Hori da, aurrerantzean ere, jarraitu behar dugun bidea.

Gure helburua eta erronka da sortzen dugun berrikuntza enpresa txikienera ere eramatea. Denok aurrera egiten jarraitzeko. Euskadiko ehun industrialak gure obra kolektiboa ere bihurtzeko.

Eskerrik asko, bihotz bihotzez, urte hauetan guztietan egindako lanagatik eta erakutsitako konpromisoagatik.

Berrikuntzaren bidean ikusiko dugu elkar! Ondo izan!